



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2019ko URRIAREN 31an, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2019ko urriaren 31an, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 16.00 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK:

Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Mireia Ruiz Delgado
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Aitor Beistegui Fiallegas eta Maialen Alonso Labandibar

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2019ko irailaren 26an egindako ohiko bilkura/ Sesión de fecha 26 de septiembre de 2019.**
 - **2019ko urriaren 10ean egindako ez ohiko bilkura/Sesión de fecha 10 de octubre de 2019.**
 - **2019ko urriaren 15ean egindako ez ohiko bilkura/Sesión de fecha 15 de octubre de 2019**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Tokiko Gobernu batzordeak hartutako erabakien berri ematea, hala bada/ Dación de cuenta de los acuerdos adoptados en la Junta de Gobierno Local.**
- 4. Larraulgo udalaren eta Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritza partzuergoaren artean udal erroldaren datuak egiaztatze hitzarmenaren onspena/ Aprobación del convenio entre el consorcio autoridad territorial del transporte de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Larraul en materia de comprobación de datos del padrón municipal.**
- 5. Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki erakundeen elkartearen kide izateari uko egitea/Renuncia a ser miembro de Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki erakundeen Elkarte.**
- 6. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.**



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. Beste batzuk/Otros.
8. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

..//...

LEHENENGO PUNTUA

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2019 urteko irailaren 26an Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2019 urteko urriaren 10ean Udalbatzaren ez-ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.
- ▣ 2019 urteko urriaren 15ean Udalbatzaren ez-ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA

ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 90/2019 tik 97/2019ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA


TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA

Ez dira aurkezten.

LAUGARREN PUNTUA

LARRAULGO UDALAREN ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZA PARTZUERGOAREN ARTEAN UDAL ERROLDAREN DATUAK EGIAZTATZEKO HITZARMENAREN ONESPENA

Ikusirik Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzak eginiko eskaera, non Udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzak hitzarmenaren zirriborroa igorri dute, Larraulgo Udalak bere onespena emateko. Agintaritzak MUGI sistema kudeatzen du, MUGI/Lurraldebus txartela bateratze tarifarioaren ardatza delarik. Erabiltzaileek txartela hauek eskuratu ahal izateko zenbait kasuetan derrigorrezkoa da Gipuzkoan erroldatuta egotea, horretarako dagokion errolda ziurtagiria eskatzen dutelarik. Beraz, egin nahi dena da hitzarmen honekin, Larraulgo herritarren eskaerak egiaztatzea, udal erroldaren bidez, honek errolda ziurtagiria eskatzea ordezkatuko duelarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, udal erroldaren lagapenari buruzko lankidetzaz hitzarmenaren onspena.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, hitzarmen hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari ematea.

BOSTGARREN PUNTUA

HOBEBI, HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO EUSKAL HERRIKO TOKI ERAKUNDEEN ELKARTAREN KIDE IZATEARI UKO EGITEA

Ikusirik, 2018ko ekainaren zazpian egindako ohiko udalbatzarrean, Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki Erakundearen Elkartearen kide egiteko erabakia hartu zela.

Ikusirik aipaturiko erabakia hartu zuen Udal-taldea aldatu egin dela, eta legealdi honetako udal-taldeak "Hobeki, hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki Erakundearen Elkartearen" kide izateari uko egin nahi diola.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: HOBEBI, Hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki Erakundearen elkartearen kide izateari uko egitea.


BIGARRENA: HOBEBI, Hondakinen kudeaketa hobetzeko Euskal Herriko Toki Erakundearen elkarteari erabaki honen berri ematea.

SEIGARREN PUNTUA

FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

BERRI LANTEGIA	37,90
ARGIA	15,00
JOSE MARIA URBIETA	10,60
ASTEASUKO UDALA	1.440,00




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

KOLDO JAUREGI	111,32
KIROLZER	42,75
CORREOS	12,01
ULAHI	398,50
DIONISIO ORMAZABAL	117,98
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	-54,63
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	841,76
SETALDE	90,77
JOXAN ALTUNA	16,59
GILBE	26,82
UR ISURI	1.161,60
EBA ERKIZIA	1.343,47
GIPUZKOAKO BERTSOZALE ELKARTEA	207,41
KOLDO JAUREGI	236,56
EUDEL	300,51
TOLOMENDI	163,95
BERRI LANTEGIA	181,54
DISTRIBUCIONES LOPETEGI,S.L.	95,37
ZU ETA BIOD	726,08
IZFE	2.011,15
GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOA	4.178,78
OSCAR GALINDO	363,00
IBERDROLA	64,12
IBERDROLA	132,92
IBERDROLA	26,33
IBERDROLA	170,28
IBERDROLA	132,92
IBERDROLA	170,59
IBERDROLA	78,47
IBERDROLA	156,88
NORTEGAS	71,22
NORTEGAS	33,78
MOVISTAR	182,11
MOVISTAR	97,41
MOVISTAR	45,00
MOVISTAR	0,99
MOVISTAR	97,41
MOVISTAR	182,11
UR AGENTZIA	30,12

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengo,

ERABAKITZEN DU



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **15.749,45** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Batzarkideak aho batez, Udalbatza honetan, hurrengo puntua gai zerrendan sartzea onesten dute:

7.1. 2019-2020 IKASTURTERAKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN OINARRIEN ONESPENA, HALA BADAGOKIO

Alkate-Lehendakari andreak eskaturik Udaleko Idazkari-Kontuhartzaile andreak 2019-2020 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta bertan jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien zirriborroa prestatu du.

Zirriborroa banatu ondoren eta gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- 2019-2020 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat eta Larraulgo udalerrian jarduera ekonomikoak burutzen dituztenentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartzea.


BIGARRENGOA.- Diru-laguntza eskaera egiteko epea, 2020ko uztailaren 31arte zabalduko da.

HIRUGARRENGOA.- Aipaturiko deialdia jendaurrean jartzea.

ZORTZIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 17:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

